BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4481

AGINDUA, 2020ko urriaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita enpresa-egonaldietarako beken deialdia, 2020-2021 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten lanbide-heziketako ikasleentzat.

Datozen urteetan, aldaketa handiak, oso sakonak eta oso azkarrak biziko ditugu. Aldaketa horiek aukera handiak irekiko dituzte, eta hain garrantzitsuak izango dira ezen eragina izango baitute gure bizimoduan, bai bizitza pertsonalean, bai profesionalean. Enpresa-kudeaketako eredu-aldaketek, aldaketa demografikoek, globalizazioa bezalako faktoreek eta gizarteak bizi duen aurrekaririk gabeko osasun-egoera globalak eragin zuzena izango dute hezkuntza- eta lanbide-sisteman, eta inpaktu nabarmena izango du horrek prestakuntzan eta enpleguan, zeina zehatz-mehatz ebaluatu behar baita. Horrek guztiorrek behartzen du egin beharreko eraldaketak egitera sortzen diren erronka berriei aurre egiteko prest egon dadin lanbide-heziketa eta, zehazki, lantokietako prestakuntza.

Ildo horretan, lanbide-heziketak aurrehartze-jarrera izan behar du, aitzineratuz eta beste gisa batean lan egiteko premia erantsian zentratuz bere indarrak, beste helburu eta xede batzuekin, beste antolaketa batekin, etorkizunaren ikuspegi moderno batekin eta egiteko modu ezberdina bilatzeko premiarekin, pertsonen eta erakundeen arteko, baina, batez ere, LHko zentroen eta enpresen arteko lankidetza eta kooperazioa oinarri duen modu bat, lanbide-heziketa lan-merkatuaren berregituraketara egokitzeko gisan, etengabeko eta beharrezko elkarrekintza sortuz.

Eusko Jaurlaritzaren jarduera-esparru estrategikoaren arabera, lanbide-heziketa zutabe bat da, hazkunde iraunkorrarekiko eta giza garapenarekiko konpromisoan kokatzen diren pertsonen aldeko konpromisoan kokatzen den zutabea, hain zuzen. Lanbide-heziketak hezkuntzaren ingurune naturala du abiapuntu, baina inpaktu handia du euskal ekonomiaren beste arlo batzuetan ere, eragina baitu bai langileen enplegagarritasunean bai enpresen lehiakortasunean

Belaunaldi berriek konpetentzia, jarrera eta esperientzia espektro zabala eskuratu beharko dute bai prestakuntza-zentroan bai lantokian, eta gizarte-erronkaren bidez estimulatuko da konpetentzia horien garapena, pentsamendu kritikoa eta eraikitzailea sustatuta. Enpresako praktika funtsezko faktorea da barneratze horretarako, eta, testuinguru horretan, lantokiko prestakuntzaren modulua da lanbide-konpetentziak eta giza konpetentzia batu, garatu eta baliozkotzen dituen gune bat. Horretarako, lanpostu berrietara arrakastaz heltzeko, etengabe egokitzen aritzea ahalbidetzen duten gaitasunak izan beharko dituzte pertsonek. Egokitzeko, autokudeatzeko eta denbora laburrean ezagutza berriak etengabe eskuratzeko gaitasunak direla eta, funtsezko eta ezinbesteko faktorea da enpresako egonaldia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako politikak garatzeko esparrua arautzea, garrantzi berezia baitute sistema ekonomikoan, EAEk helburu duen eredu ekonomiko berrian egoera egoki batean jartzeko gai izan dadin; horretarako, sustatu beharreko ekonomiak hazkunde adimendun, iraunkor eta integratzaile bat behar du oinarri, eta, era berean, gizarte-kohesio handiagoa ahalbidetuko duen kalitateko enplegu egonkor bat sortu behar da.

Enpresaren eta ikastetxeetako prestakuntzaren artean azken urteotan garatu diren txanda-katze-esperientzien balorazio positiboa dela eta, ekainaren 28ko 4/2018 Legetik ideia hau sortu da, besteak beste: gure produkzio-sistemarekiko loturak sustatzen jarraitzea eta, horretarako, enpresa-sarearen eta lanbide-heziketako zentroen arteko lankidetza indartzea, balioa elkarrekin sortzeko xedez.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 6. artikuluan dago ezarrita zein diren enpresen, gizarte-eragileen eta beste erakunde batzuen arteko lankidetza-ildoak, eta adierazita dago prestakuntza lagungarri izango dela ikasleek enpresetan praktika profesionalak egin ditzaten.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 42.2 artikuluak heziketa-ziklo guztietarako nahitaez ezartzen du lantokietako prestakuntza praktikoaren fase bat, eta Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen 32/2008 Dekretua aldatzen duten uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuak eta otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak lantokiko prestakuntzaren modulua jaso eta garatzen dute. Modulu hori titulu bakoitzerako zehazten da titulua sortzeko errege-dekretuan eta modulu bakoitzari esleitutako FCTS kreditu-kopurua eta iraupen-orduak finkatzen dituen curriculuma ezartzen duen dekretuan.

Halaber, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan arautzen da prestakuntza-programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak zein diren, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatzeko, bai eta azaroaren 31ko 1543/2011 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean lanekoak ez diren praktikak egiten dituzten pertsonak sartzeko baldintzak ere.

Horregatik guztiagatik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin, eta bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluko III. kapituluan jasotako dirulaguntzei buruzko indarreko legeekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Agindu honen xedea da enpresa-egonaldietarako beken deialdia egitea, 2020-2021 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten eta 2021eko martxoan ebaluatuko diren lanbide-heziketako ikasleentzat.

2.– Diruz lagunduko den enpresa-egonaldiak hilabetetik hiru hilera bitartean iraungo du, eta lantokiko prestakuntzako modulua egin ondoren gauzatuko da.

3.– Egonaldi hori egiteko, enpresak eta ikastetxeak izenpetutako lankidetza-hitzarmenean ezarritako baldintzak bete beharko dira; hitzarmen horren eredua agindu honen II. eranskinean dago.

4.– Beka hauek ez dira dirulaguntza itzulgarriak. Agindu honetan araubide juridikoari buruz xedatzen ez diren alderdietan, lege honek ezarritakoa aplikatuko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartua –bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak emandako laguntzen eta dirulaguntzen araubideari eta arau-hausteen eta zigorren erregimenari buruzko xedapenak–, bat etorriz, betiere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren

17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin eta azken horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuarekin.

2. artikulua.– Beka-kopurua eta zenbatekoak.

1.– 394 beka emango dira, eta onuradun bakoitzak gehienez 1.800 euro garbi jasoko ditu (600 euro hilean).

2.– Beka bakoitzak 1493/2011 Errege Dekretuan ezarritako kotizazio-araubidea bete beharko du (1493/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, prestakuntza-prometan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak eta betebeharrak arautzen dituena), Gizarte Segurantzako sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa gara-tzeko. Beraz, 227,60 eurokoa izango da beka-onuradun bakoitzeko kostua.

3. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Deialdi honetara, zazpiehun eta laurogeita hemezortzi mila zortziehun eta hirurogeita hama-bost (798.875) euroko kredituaren gehieneko zenbateko osoa bideratzen da.

2.– Beka guztiak (394) Lanbide Heziketako prestakuntza-mailaren arabera banatuko dira, honako proportzio honetan oinarrituta:

– Beka guztien % 20, hau da, 79 beka, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleentzat.

– Beka guztien % 50, hau da, 197 beka, erdi-mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat.

– Beka guztien % 30, hau da, 118 beka, goi-mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat.

3.– LHko prestakuntza maila bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien % 5 gordeko da eskae-raren egunean % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonentzat. Hurbileneko zenbaki osora biribilduko da, eta 20 plaza gordeko dira guztira.

4.– Prestakuntza-maila bati edo gehiagori esleitutako beken kopurua ez bada betetzen, beken gerakina proportzionalki banatuko da, aurreko paragrafoan adierazitako ehunekoei jarraikiz.

4. artikulua.– Eskakizunak.

1.– 2020-2021 ikasturtean bigarren mailan matrikulatuta egotea eta lantokiko prestakuntzako modulua irailetik abendura bitartean egin behar izatea.

2.– Enpresa interesatua egotea egonaldia bertan egiteaz. Enpresaren interes hori II. eranskineko lankidetza-hitzarmena sinatuta gauzatuko da.

3.– 2020ko abenduaren 31n 30 urte baino gehiago ez izatea, salbu eskaeraren egunean % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonen kasuan, kasu horretan ez baita adin-mugarik izango.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 eta 6. artikuluak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatzeko, eskabidearekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da, honako betebehar hauek egiaztatzeko:

a) Eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko zigor- eta adminis-trazio-arloko debekurik, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, espresuki barne hartuta

sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak, bat etorriz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin.

b) Egiazkoak direla eskabideko eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetako datuak, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarreko araudian ezarritako baldintzak.

c) Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeretako batean.

d) Adieraztea helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik edo bestelako baliabiderik eskatu duen beste Administrazio edo erakunde publiko zein pribaturen batean, eta, hala badagokio, ea jaso dituen.

e) Enpresekin izenpetutako hitzarmenak Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren eskura jarri dira programak onartzeko erabilitako aplikazio elektronikoan.

5. artikulua.– Eskabideak.

1.– Eskabideak (I. eranskina) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira (https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1058703), modu hauetako batean:

Online, Hezkuntza Sailak horretarako gaitutako aplikazio informatikoaren bidez, kasuan kasuko dokumentuak erantsita. Online aurkezteko, ziurtagiri digitalaren identifikazioarekin atzitu, hemen: https://www.hezkuntza.net/y44BecPolCieWar/y44MantenimientosJSP/y44LoginF.do?idioma=eus

Aurrez aurre. Eskabidea betetzeko, helbide elektronikoarekin identifikatuko da (posta elektronikoa eta pasahitza), esteka honetan:

https://www.hezkuntza.net/y44BecPolCieWar/y44MantenimientosJSP/y44LoginF.do?idioma=eus

Eskabidea bete eta gero, inprimatu, sinatu eta toki hauetako batean entregatuko da:

– 2020-2021 ikasturtean matrikulatuta dagoen ikastetxean, edo

– Zuzenean zerbitzuan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetako batean, manu horretan ezarritako baldintzen arabera eta zein ikastetxetarako den adierazita. Dokumentazioa postetxean aurkeztea aukeratuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postetxeko langileek, ziurtatu baino lehen, data eta zigilua jar diezaioten eskabide-orriari. Hala egin ezean, ikastetxean sartzen den egunean aurkeztutakotzat joko da. Eskabideak Zuzenean zerbitzuan aurkezteko, aurretiazko hitzordua hartu beharko da nahitaez https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean

2.– Adingabeen kasuan, amak, aitak edo legezko tutoreak sinatu beharko du eskabidea.

3.– Eskabide hori aurkeztean, berez onartzen dira deialdi honen oinarriak.

4.– Eskabideari dokumentu hauek erantsi behar zaizkio:

– Ikasleek: «Hirugarrenen alta», esteka honetan eskuragai: https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/. Onuraduna adin nagusikoa bada, berak bete beharko du dokumentu hori, eta bera izango da banku-kontuaren titularra. Aldiz, bekaren onuraduna adingabea bada, hirugarrenaren alta amak, aitak edo legezko tutoreak egingo dute, eta horiek izango dira banku-kontuaren titularrak.

– Ikastetxeek: enpresarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena (deialdi honen II. eranskina).

5.– Erantzukizunpeko adierazpena sinatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.6 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.7 artikulua aplikatzeko. Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, betebehar hauek egiaztatzen dira:

5.1.– Eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko zigor- eta administrazio-arloko debekurik, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, espresuki barnean hartuta sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak, bat etorriz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin.

5.2.– Egiazkoak direla eskabideko eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetako datuak, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

5.3.– Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeretako batean.

5.4.– Adieraztea helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik edo bestelako baliabiderik eskatu duen beste Administrazio edo erakunde publiko zein pribaturen batean, eta, hala badagokio, ea jaso dituen.

6.– Inskribatzeko unean egiaztatuko da interesdunak baliozko erabiltzailea eta pasahitza badituela Ikasgunean, beharrezkoa izango baita eskabidearen jarraipena egiteko. Hala ez bada, hemen erregistratu beharko da: https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/inicio

6. artikulua.– Eskabideak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko epea.

1.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

2.– Ikasgunean argitaratuko da eskabide akastuna edo osatu gabea duten eskatzaileen zerrenda. Zerrenda horiek argitaratzeaz batera hasiko da eskabideetan atzemandako akatsak zuzentzeko hamar egun balioduneko epea, eta ohartaraziko da ezen, hala egin ezean, eskabidean atzera egin dutela ulertuko dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaren arabera ebazpena eman ondoren.

7. artikulua.– Bekak emateko prozedura eta bekak baloratzeko eta esleitzeko irizpideak.

1.– Deialdiaren xede diren bekak emateko, norgehiagoka-prozedura erabiliko da, hau da, aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, eta hurrenkera bat ezarriko da beken artean, artikulu honen 2. apartatuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

2.– Honako hauek izango dira balorazio-irizpideak:

a) Lanbide Heziketako zikloko lehen ikasturteko batezbesteko nota, honako balorazio honekin:

– (≥9) eta (≤10): 2,75 puntu.

– (≥7) eta (<9): 2,15 puntu.

– (≥6) eta (<7): 1,10 puntu.

– (≥5) eta (<6): 0,5 puntu.

– (<5): 0 puntu.

b) Ikasleak 2020ko abenduaren 31n duen adina, honako puntuazio honekin:

– > 25: 1,85 puntu.

– 21-25: 1,15 puntu.

– 18-20: 0,5 puntu.

3.– Eskabideen arteko berdinketa izanez gero, aplikazio informatikoak egindako ausazko prozedura bat erabiliko da. Eskabidea grabatzeko unean, aplikazio informatikoak eskabide bakoitzari zenbaki oso bat esleituko dio, 1 eta 9.999.999.999 bitartekoa, eta zenbaki hori erabiliko da berdinketak desegiteko. Zenbaki txikienari emango zaio lehentasuna.

4.– Aurreko irizpideak aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenen artean egingo da esleipena, agindu honen 3. artikuluan ezarritako kreditu erabilgarria agortu arte.

5.– Eskakizunak betetzen dituzten gainerako beka-eskatzaileak onuradun ez badira erabilgarri dagoen kreditua agortu delako, erreserba-zerrenda batean sartuko dira, eta, hasiera batean beka esleitu zaien pertsonen artean bajarik badago, zerrenda hori erabiliko da. Zerrenda hori puntuazio handienetik txikienera ordenatuko da.

8. artikulua.– Deialdia kudeatzea.

1.– Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi hau.

2.– Xede horretarako sortutako ebaluazio-batzorde batek baloratuko ditu dirulaguntza-eskabideak, eta honako hauek osatuko dute batzorde hori:

– Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzako bi teknikari; horietako bat batzordeburua edo presidentea izango da, eta bestea idazkaria.

Batzordeburua: M.ª Eugenia Santos Urdiain, Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

Idazkaria: M.ª Carmen Fuerte Marin, Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza bakoitzeko teknikari bat.

Araba: Mikel Imaz Gorrotxategi.

Bizkaia: Luisana Guinea de la Cruz.

Gipuzkoa: M.ª Teresa Lizartza.

3.– Aurkeztutako eskabideak baloratu ondoren, bekak emateko ebazpena proposatuko dio balorazio-batzordeak Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari, bai eta erreserben zerrenda ere. Zerrenda horretan, bekarik lortzen ez duten pertsonak sartuko dira, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta.

9. artikulua.– Prozedura ebaztea.

1.– Plangintza eta Antolaketako zuzendariak ebatziko du deialdia, ebaluazio-batzordearen proposamen arrazoitua jaso ostean.

2.– Esleipen-ebazpena Ikasgunean argitaratuko da, eta jakinarazpen gisa balioko du. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da denek jakin dezaten.

3.– Halaber, erreserba-zerrenda Ikasgunean argitaratuko da. Bekaren esleipenduna enpresan sartzen ez bada erabiliko da erreserba-zerrenda, eta bertako lehen pertsonari emango zaio beka.

4.– Beka hauek ebazteko gehieneko epea hiru hilekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik argitaratu ez bada, eskabideak ezetsitzat jo ahal izango dira.

5.– Prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lanbide Heziketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Ikasgunean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

10. artikulua.– Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra.

1.– Eusko Jaurlaritzak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango die beka hauen onuradunei, Prestakuntza-prometan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzeko baldintzak arautzen dituen urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuaren arabera.

2.– Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzak kudeatuko ditu beka hauen onuradun diren ikasleen altak eta bajak.

3.– Aldi baterako ezintasunen bat (ABE) edo lan-istripuren (LI) gertatzen denean, ikastetxeek berehala jakinarazi beharko diote Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzari.

11. artikulua.– Enpresan sartzea eta bekak ordaintzea.

1.– Behar diren laguntzak zuzenean ordainduko zaizkio onuradunari, banku-transferentzia baten bidez, bi ordainketa-agindutan.

2.– Lantokiko prestakuntza amaitu ondoren, eta ikasleak enpresan benetan hasi direla egiaztatu ondoren, beka osoaren % 80 ordainduko da (1.440 euro).

3.– Gainerako % 20a (360 euro), enpresak eta praktiketako tutoreak sinatutako balorazio- eta asistentzia-txostenaren ondoren ordainduko da. (deialdi honen III. eranskina).

4.– Bekaren onuraduna ez bada enpresan sartzen, erreserba-zerrendako lehen pertsonari esleituko zaio beka, zerrendan ezarritako hurrenkeraren arabera.

5.– Balorazio- eta asistentzia-txostenak egin ostean, egiaztatuta geratzen bada enpresako benetako egonaldia hiru hilekoa baino laburragoa izan dela, bekaren zenbatekoa birkalkulatuko da denbora horrekiko proportzioan, eta bion arteko aldea itzuliko da. Egonaldia hilabetetik beherakoa izan bada, ordaindutako zenbateko osoa itzuli beharko da.

12. artikulua.– Dirulaguntza aldatu, berrikusi eta itzultzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, ebazpena aldatu ahal izango da dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritako baldintzetan, baldin eta dirulaguntzaren araudian onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

2.– Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze-interesak eskatzeko, honako hauetan xedatutakoa beteko da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako testu bategina); abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. titulua, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikulua.

3.– Aipatutako araudian jasotako gorabeheraren bat eta, bereziki, gorabehera hauetako bat izanez gero, jasotako dirulaguntza eta sortutako legezko interesak itzuli beharko dira:

a) Ez betetzea agindu honetan eta berau garatzen duten ebazpenetan xedatutakoa.

b) Ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura emandako dirulaguntzen onuradunei dagokien betebehar oro.

Betebehar horrek ez du loturarik izango, hala balegokio, eska litezkeen zehapenekin.

4.– Itzultzeko prozedura abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuan araututakoa izango da (1992ko otsailaren 17ko EHAA).

13. artikulua.– Beka hauen onuradunen betebeharrak.

Betebehar hauek izango dituzte beken onuradunek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta onuradunek, hamabost egun naturaleko epean –deialdiari buruzko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera–, espresuki eta idatziz uko egiten ez badiote dirulaguntzari, onartutzat joko da.

b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, eskatzen duten informazioa ematea deialdi honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz.

c) Medikuaren baja-partea (ABE/LI) intzidentea gertatu eta hurrengo 24 orduetan aurkeztea ikastetxean.

d) Legezko gainerako betebehar guztiak, bereziki azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritakoak.

14. artikulua.– Bateraezintasuna.

1.– Agindu honetan ezarritakoaren arabera emandako laguntzak bateragarriak izango dira Administrazio orok edo nazioko zein nazioarteko erakunde publiko edo pribatu orok helburu bererako emandako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baina diruz lagundutako zenbateko osoak, bakarka hartuta edo beste batzuekin batera, ezin izango du gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.

2.– Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak izango lan-jarduera ordainduekin.

15. artikulua.– Datu pertsonalak babestea.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, 2020-2021 ikasturtean, irailetik martxora bitartean, lantokiko prestakuntzako modulua egiten duten lanbide-heziketako ikasleek enpresa-egonaldietarako bekak lortzeko deialdia kudeatzen duten organoek eskabideko datu pertsonalak erabiliko dituzte deialdiko emakidak gauzatzeko.

Gainera, deialdi honetan sortzen diren informazioa eta zerrendak Ikasgunean kontsultatu ahal izango dira, eta ezin izango dira zentroetako iragarki-tauletan argitaratu.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko mugak ezartzeko eta tratamenduaren aurka

egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri behar dute Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Bi epeak deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 13a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

LH-RAKO ENPRESA-EGONALDIETARAKO BEKA

DATU AKADEMIKOAK

Hezkuntzako Identifikazio Dokumentua: Zentroaren kodea: Ikastetxearen izena:
Herria: Lurraldea: Ikasketa-plana: Kurtsoa: Maila:
Espezialitatea: Hizkuntza-eredua: Txanda: Modalitatea:
1. kurtsoko batezbesteko nota:

IKASLEAREN DATU PERTSONALAK:

Izena: 1. abizena: 2. abizena: NAN/AIZ:
Jaiotze-data: 2020ko abenduaren 31n duen adina: Sexua: G E Harremanetarako telefonoa:

Errolda-helbidea

Helbidea: Eskailera:____Solairua. Aldea:_____Atea:
Posta-kodea: Herria: Udalerria: Lurraldea:

Ikaslearen / aitaren, amaren edo legezko tutorearen banku-datuak (1)

Titularraren NAN/AIZ: 1. abizena: 2. abizena: Izena:
Kontuaren IBAN:

Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia (2)

Hirugarrenen alta http://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuaren-aldaketa/web01-tranmite/eu/ (3)

Jakinarazpen telematikoetarako datuak

Telefono mugikorra: Helbide elektronikoa: Jakinarazpenetarako hizkuntza: ☐ Gaztelania Euskara

NAHITAEZ BETE BEHARREKO EREMUAK

(1) Hemen ezin da jarri pasaportearen zenbakia. NAN edo AIZ baino ez dira onartuko.

(2) Beka hauek eskatzen dituzten ikasle guztiek izan beharko dute Gizarte Segurantzako zenbakia. Hala ez bada, eskabidea egin aurretik eskatu beharko dute Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalean.

(3) Onuraduna adin nagusikoa bada, hirugarrenaren altaren orrian betetzen diren datuak onuradurarenak berarenak izango dira. Onuraduna adingabea bada, datuak onuradunaren amarenak, aitarenak edo legezko tutorearenak izango dira. Datuek bat etorri behar dute eskabide honetan sartutako banku-datuekin.

ENPRESAREN DATUAK

Enpresaren izena: Lurraldea:

Erantzukizunpeko adierazpena

..... andreak/jaunak (NAN-zk.:.....)

ADIERAZTEN DUT:

- *Eskatzaileak ez duela dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko zigor- eta administrazio-arloko debekurik, ez eta laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, espresuki barnean hartuta sexu-bereizkeriaren ondoriozkoak, bat etorriz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin.*
- *Egiazkoak direla eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak, eta betetzen direla laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.*
- *Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan zehaztutako egoeretako batean ere.*
- *Adieraztea helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik edo bestelako baliabiderik eskatu duen beste Administrazio edo erakunde publiko zein pribaturen batean, eta, hala badagokio, ea jaso dituen.*

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, zuzenean edo TKNIKA Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako Zentroaren bidez, dagokionaren arabera, aurkeztutako datuak erkatu eta behar diren egiaztapenak egin ahal izango ditu, dirulaguntzak behar bezala esleitzeko.

BAIMENAK.

Onartzen eta ulertzen ditut erantzukizunpeko adierazpenak

....., 2020ko .....aren .....a.

Eskatzailearen sinadura:

ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA:

Ikastetxean edo telematikoki: 2020ko urriaren 27tik 2020ko azaroaren 26ra

Eskabide honekin lotutako kontsultak egiteko, ikaslearen ikastetxera jo beharko da.

Datuak babesteari buruzko informazioa:

Arduraduna: *Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza* ***Legitimazioa:*** *5/2002 Lege Organikoak tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoa egikaritzea* ***Hartzaileak:*** *Gaiko eskumena duten Administrazio publikoei eman dakizkieke datu pertsonalak.*

Eskubideak: *Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezabatzeko eta datuen tratamendua mugatu eta haren aurka egiteko. Eskubide horiek egikaritzeko, tratamenduaren arduradunarengana jo behar duzu; horretarako, idazki bat bidali beharko duzu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).*

II. ERANSKINA

ENPRESAREN ETA IKASTETXEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, LANBIDE-HEZIKETAKO IKASLEEK EGONALDIRAKO BEKA IZAN DEZATEN 2020-2021 IKASTURTEAN, ABENDUTIK MARTXORA BITARTEAN

Batetik, ……..…… andreak/jaunak, ...…….. ikastetxeko titularra, eta, bestetik, ...…… andreak/jaunak, …… enpresaren ordezkaria, biek izenpetzen dute lankidetza-hitzarmen hau, zeinaren xedea baita ikasleei ahalbideak ematea, beka-aldi hauen bidez, dagokien titulua eskuratzeko behar dituzten konpetentziak, gaitasunak eta trebeziak lortzea.

KLAUSULAK

1.– Ikasleek ezin izango dute inolako lan-lotura edo -harremanik izan egonaldia egin behar duten enpresarekin.

2.– Enpresak ez die ikasleei inolako lansaririk emango bekaldian zehar egiten dituzten jardueren truke.

3.– Eusko Jaurlaritzak alta emango die bekaren onuradunak diren ikasleei Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean.

4.– Lantokian, edo, hala badagokio, jarduera edo lekualdaketa egiten den lekuetan gertatzen den edozein istripu izanez gero, Mutualia-ra bideratuko da.

5.– Enpresak zainduko du betetzen direla lan-segurtasun eta higieneari buruzko legeak.

6.– Enpresak izendatuko ditu behar diren instruktoreak, zeinek behar bezalako prestakuntza izango baitute, ikasleen prestakuntzaz ardura daitezen.

7.– Prestakuntza-plana, bat etorriz dagokion heziketa-zikloaren curriculumean definituarekin, ikastetxeko tutoreak eta enpresako instruktoreak ezarriko dute elkarrekin.

8.– Ikastetxeko tutoreak gainbegiratuko du zer-nolako lana egiten duten ikasleek.

9.– Ikasleek ez dute astean 35 ordu baino gehiago igaroko enpresan.

....., 2020ko .....ren .....a.

IKASTETXEAREN TITULARRA,

ENPRESAREN ORDEZKARIA.

III. ERANSKINA

BALORAZIO- ETA ASISTENTZIA-TXOSTENA
(enpresako instruktoreak bete behar du)

BALORATZEKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
	1	***2***	***3***	***4***	***5***
Egin behar den atazarekiko interesa eta prestasuna					
Jarduera / praktika egiteko erantzukizuna					
Ataza garatzeko eta zentratuta egoteko gaitasuna					
Praktikak egiteko autonomia					
Segurtasun-arauekiko errespetua					
Ataza egiteko trebetasuna					
Egin behar diren atazekiko jarrera positiboa					
Ataza horietarako konpetentziak barneratzeko gaitasuna					
Lantaldeko integrazioa – Taldelana					
Bestelakoak.					

BEKA/PRAKTIKAKO INSTRUKTOREAREN BESTE OHAR / IRUZKIN BATZUK:

ASISTENTZIA-KONTROLA (falten partea):

Eguna/k (data)	Justifikazioa

Instruktorearen oniritzia	
Data	

Eguna/k (data)	Arrazoibidea

Instruktorearen oniritzia	
Data	

Eguna/k (data)	Arrazoibidea

Instruktorearen oniritzia	
Data	

....., 2020ko .....ren .....a.
Sin.: (instruktorearen izen-abizenak).
Sin.: (tutorearen izen-abizenak).